

## **Dantza**

Kulturaren Euskal Planaren Dantzaren taldearen  
bileretan oinarritutako txostena

2003ko urria

<b>AMIA ANALISIA</b>	<b>3</b>
<b>INDARGUNEAK</b>	<b>3</b>
<b>AHULEZIAK</b>	<b>3</b>
<b>2. JARDUNBIDEAK</b>	<b>6</b>
<b>3. LEHENTASUNA DUTEN JARDUNBIDEAK</b>	<b>10</b>

# **AMIA ANALISIA**

## **INDARGUNEAK**

### **Trebakuntza eta Ikerketa:**

- ← • Sentsibilizazio handia edo laguntza Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik dantzari.
- ← • Kasu askotan Euskaditik kanpo joan behar diren arren, edo ikastaroak eta lantegiak emateko kanpotik ekarritako profesionalekin trebatu behar diren arren, aipatzekoa da Euskal Herriko dantza-profesionalek egiten duten ahalegin handia trebakuntza egokia lortzeko.

### **Sorkuntza:**

- ← • Talde, konpainia eta koreografo asko daude Euskal Herrian dantza-munduan jarduten dutenak, batzuk amateur gisa eta beste batzuk profesional gisa.
- ← • Dantza-munduan jarduten dutenen taldeak eta profesionalak oso sortzaileak dira.

### **Kontsumo Kulturala:**

- ← • Publikoak gustu eta interes-maila ona du dantzarekiko Euskal Herrian.
- ← • Publikoak interesa du dantza-tradizionaleko taldeetan parte hartzeko. Euskal Herrian 10.000 pertsonak egiten dute dantza afizioz dantza-tradizionaleko taldeetan.

## **AHULEZIAK**

### **Trebakuntza:**

- ← • Irakasleak unibertsitate-ikasketetan oso gutxi trebatzen dira dantzan (40 ordu). Ondorioz, ezjakintasun handia dago gero irakasteko orduan, nahiz eta dantza curriculum-diseinuan nahitaezkoa izan.
- ← • Irakaskuntza ez-araturako ez dago diru-laguntza nahikorik. Dagoen diru-laguntza txikia banakako dantzariantzat izaten da.
- ← • Dantza-ikasketa jarraitu nahi duten ikasleek ezin dute ikasketa-

profesionalarekin jarraitu.

- ← • Ez dago dantzako goi-mailako ikasketarik Euskal Herrian
- ← • Dantza-eskolak ez daude araututa. Ez dago erregistrorik hezkuntza-sailean
- ← • Umeek ez dute euskal folkloreari buruzko informaziorik
- ← • Gizonezkoen falta dago dantzako hiru estetiketan Euskal Herrian, batez ere 14-23 urte bitartean.
- ← • Gestoreentzat, koreografoentzat... trebakuntza falta dago.
- ← • Taldeek jarraitasuna eta iraunkortasuna izateko, ezinezkoa da Euskal Herrian talde egituratu bat egotea instituzioek inbertsiorik egin beharrik izan gabe. Heziketa Sailak parte hartu beharko luke egitura horiek sortzeko lanetan, eta ez soilik Kultura Sailak.
- ← • Euskal Herrian dantza gutxi egituratuta egotearen eraginez talentu handiko dantzari asko galtzen dira. Batzuetan haien ahalegina hobe baloratzen dute dantza berdin baloratzen duten herrialdeetan.

#### **Sorkuntza:**

- ← • Etorkizunean profesional bihurtzeko edo dantzan guttiz murgiltzeko bidearen lehen pausoa da askotan amateur izatea.
- ← • Euskadiko programatzaile eta komunikabide gehienak oso gutxi arriskatzen dira, eta oso laguntza gutxi ematen dituzte Euskal Herriko dantzari profesionalek egindako sorkuntzentzat, nahiz eta Euskadikoak ez diren konpainien emanaldiak ikustera jende asko joaten den batzuetan.
- ← • Dantzan joera berriak aztertzeko aukera eta ikerketa egiteko aukera maiz Euskal Herriko dantzari profesionalek berek hasitako ekimenen ondorio dira.

#### **Ekoizpena:**

- ← • Umeentzako, gazteentzako, zein helduentzako dantza-ekoizpenak bultzatzeko laguntza gutxi ematen dute instituzio publikoek.
- ← • Euskal Herriko konpainien sorkuntza-lanak ezin dira iritsi ekoizpen- eta banaketa-maila handiagoetara, baliabideak urriegiak direlako.
- ← • Euskal Herrian kultur industriari egitura sendoa ez izateak pertsona bakar batek bere ekoizpenaren sortzaile, ekoizle eta interprete lanak egin behar izatea eragiten du. Dantzari asko egongo litzateke oso pozik interprete gisa soilik lan egin izan ahalko balu, eta ez beste lanak egiten.

← • Arte Eszenikoak defizitarioak dira berez. Hala ere, haien beharra eta errentagarritasuna ez du inork zalantzan jartzen.

### **Banaketa eta erakusketa:**

← • Komunikabideetan dantza oso gutxi azaltzen da, edo ia bat ere ez. Ez dago kazetari bereziturik.

← • Komunikabide publikoetan dantza oso gutxi agertzen da. Ez dago edukiei edo jarduera-agendei buruzko informaziorik.

← • ETBk dantza-grabazioei egiten dien tratamendua zalantzarria da: ordutegiak ez dira onak izaten eta programak maiz errepikatzen dira.

← • Instituzio publikoek gutxiegi laguntzen dute dantza erakusketak eta dantza banatzea bultzatzen (umeena, gazteena, nahiz helduena), Euskal Herri barruan zein kanpoan.

← • Gaur egun birak egiteko laguntza-eskaerak ekoizpenarekin batera aurkeztu behar da, eta hori ezinezkoa izaten da, lehenengo obra egin behar baita gero atzerritik gonbidapenak jasotzeko. Gainera, gonbidapenak jaso arren, kostu ekonomikoa handiegia izaten da konpainientzat.

← • 'Euskadin egindako jatorrizko koreografiak' ikusten uzteko borondaterik ez badago Euskadin bertan, ezinezkoa izango da kanpoan ikustea.

← • Azoken edo dantzari eskainitako ekitaldi berezien edo Hizkuntza Eszeniko Berrien falta dago Euskal Herri osoan.

### **Kontsumo Kulturala:**

← • Ez dago publiko-mota berria sentsibilizatzeko programarik, lantegi irekirik, eskola-funtziorik, eta abarrik.

← • Euskal Herriko komunikabideetan dantza bultzatzeko kanpainarik ez dago, batez ere komunikabide publikoetan.

← • Euskal biztanle gehienek orientazio falta dute herri baten kultura espiritualaren parte bezala dantza tradizionala ikustearen inguruan.

← • Ikuskizunetara gehienbat dantzaren sektoreko jendea joaten da.

## **2. JARDUNBIDEAK**

### **1. Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak.**

- Mahai orokor bat eratzea** dantzarekin lotura duten hainbat ekimenen jarraipena egin eta koordinatzeko. Eusko Jurlaritzaren (Kultura eta Hezkuntza), aldundiak, hiru hiriburutako udalak eta dantzako zenbait sektoreetako elkarte edo ekimenetako ordezkariak izango lirateke laguntzaileak.
- Dantza tradizionalentzako mahai berezi bat eratzea**, sektore horren ekimenak eta behar bereziak ordenatu eta koordinatuko dituen (sektore hori mahai orokorrean ere egongo litzateke).
- Eusko Jurlaritzaren Kultura Sailaren barnean dantzaren unitate berezi bat eratzea** ekimenak koordinatu eta dituen eskumenak garatzeko.

## 2. Baliabideak bultzatzea (trebakuntza, lana, lankidetzak, etab.)

### -Dantza tradizionala: koordinazioaren eta baliabideen zerbitzu berezia, Kultura

Tradizional edo Folklore Institutuaren esparruan; ikerketa, trebakuntza, sustapen eta zabaltze programa zehatzak garatuko dira.

### -Dantzaren egoera, egituraketa eta irakaskuntza arautuaren analisia trebakuntzaren maila guztietan (oinarrizko zikloa, erdi mailakoa, eta goi mailakoa). Dantza tradizionalaren titulua egituratzea. Beharren azterketaren arabera:

-Oinarrizko zikloen bat ireki edo homologatzea. Interesgarria litzateke dantzako oinarrizko zikloa eta irakasgai orokorrak izango lituzkeen zentro bat sortzea.

- Dantzako erdi mailako zikloak abian jartzea edo homologatzea. Interesgarria litzateke dantzako erdi mailako zikloa eta irakasgai orokorrak izango lituzkeen zentro bat sortzea.

-Dantzako goi maila sortzea (Kontserbatorioa edo Institutua). Goi maila hori Arte Eszenikoen Institutu orokorraren barruan egon ahalko litzateke.

-EHUn dantzako titulu bat sortzea, kontserbatorioko edo goi mailako institutuko ikasketen osagarri gisa.

### -Dantza-eskolak sortu eta homologatzea -irakaskuntza ez-arautua- oro har zale guztiei irekiak (Musika Eskolen modukoak), eskola eta akademia pribatuak arautzea eta irakasleak homologatzea. Hala, etengabeko trebakuntza eskainiko zaie dantza-eskoletako irakasleei, Garatu gisako planen bidez.

- Dantza arloko profesionalentzako etengabeko trebakuntza-ekintzak antolatzea eta bultzatzea estilo guztietan, hainbat ekimenen bidez sustatu edo antolatuak.

## 3. Enpresa-egitura ordenatzea (informazioa, arauak, asoziazionismoa eta behin-behineko organismo eragileak).

-3 koreografia-zentro sortu eta/edo egokitzea (edo 'Dantza etxea'), lurralde bakoitzean

bat, dantzako zaletu eta profesionali bideratuak, sentsibilizazio, sorkuntza, ekoizpen eta zabaltze jarduerak egiteko. Hauek izango lirateke zentro hauen helburu nagusiak: zentroan tokia, baliabideak eta laguntza eskaintzea eta lurralde bakoitzeko ekimenen jarduera eta baliabideak koordinatzea

- Dantza bultzatzeko irabazi asmorik gabeko fundazio bat sortzea.** Sorkuntza berriak bultzatzeko finantziario pribatua lortzea izango litzateke haren helburua. Eusko Jaurlaritzak bultzatu edo babestu ahalko luke fundazio hau.
- **Esponsor pribatuak izatea ahalbidetu edo erraztuko duten estrategiak egitea.**

#### 4. **Produktu-irizpideak (nahi dena eta ahal dena) eta euskararekin edo kulturarekin duten harremana**

#### 5. **Balio-katearen eta kudeaketaren inguruko alderdiak**

1. **5.1. Teknologia, I+G+B.**
2. **5.2. Sorkuntza.**

- **Dantzaren Konpainia Nazionala sortzea.**

-**Gazte konpainia bat sortzea, estilo ezberdinen arabera zenbait arlo edo azpikonpainia izango dituena:** klasikoa, neoklasikoa, gaur egungoa, tradizionala. Estiloen arabera, hainbat egituratze-eredu, edo egoitza, izan ditzake konpainiak.

#### 5.3. **Ekoizpena.**

-**Dantza sortu eta produzitzen duten ekimenak laguntzea.** Laguntza ekonomikoez gain, beharrezkoa da produkzioarako toki aproposak eskaintzea, baliabideak bateratzeko eta konpainiak lanean jarraitu dezaten errazteko.

-Konpainiak egonkorrak izan daitezen, bestelako laguntzak eskaintzea, **konpainia egoiliarren irudia bultzatuz edo kalitatezko konpainien ekoizpen-lana adostuz.**



#### 5.4. Banaketa eta erakusketa

- ‘Formatu txikiko edo ertaineko’ dantza programatzeko zirkuitu bat sortzea bultzatu, lurralde bakoitzean antzoki kopuru zehatz batek parte hartuz, urtean zehar programazio-erreferentzia egonkor bat izango dena. Guztiek batera, zirkuitu horren publizitatea egin.
- Hiru lurraldeetako antzoki jakin batzuetan kalitatezko dantza tradizional egonkorra bultzatzea. Horiekin batera, beste kulturetako dantzak programatu.
- Hiru hiriburuetan udaberriko eta udazkeneko dantza-jaialdiak edo dantzako ziklo berezituak sustatu eta babestu sentsibilizazio-jarduera garrantzitsu gisa. Horien inguruko bestelako jarduera osagarriak.

#### 5.5. Hedatzea

- Dantzaren Dokumentazio, Informazio eta Aholkularitza Zerbitzua. Zeregin hauek izango ditu: zabaldutako dokumentazioa jasotzea, baliabideen gida bat egin eta etengabe berritzea, web gune bat sortzea (eskolak, ikastaroak, profesionalak, konpainiak, jarduerak...), ikerketa egitea, etab. Hori guztia dantzako zaleentzat, ikasleentzat, irakasleentzat eta profesionalentzat egongo da eskuragarri.
- Sentsibilizatorako eta dantzara hasteko programak eta jarduerak antolatu eta bultzatzea. Eskola-haurrei zuzenduak egongo dira, eta eskolan bertan egingo dira - Oro har, publiko guztia dantzara sentsibilizatzeko ekintzak eta kanpainak antolatu eta bultzatzea.
  - Dantza komunikabide guztietan azaltzea bide hauek erabiliz: programazio zehatzak, agendak, albistegiak eta emankizunak; komunikabideek material hori guztia ondo tratatzea lortu.

#### 5.6. Kudeaketa-eredua hobetzea (ikastaroak, topaketak, aholkularitzak, hasitegia, etab.)

#### 6. Kontsumo kulturala dinamizatzea eta nazioarteko bihurtzea.

- Dantza-ekoizpen profesionalak kanpora irteten laguntzea –Dantza tradizionala egiten duten taldeak kanpora irteteko laguntzak –Beste autonomia erkidegoetako edo estatu kanpoko instituzioekin harremanak bultzatu dantza-zirkuituetako ekoizpenen trukea sustatzeko.

### 3. LEHENTASUNA DUTEN JARDUNBIDEAK

1. 1. Dantzarekin lotura duten ekimenez arduratu eta horiek koordinatzeko mahai orokor bat eratzea, hauen parte-hartzearekin: Eusko Jularitza (Kultura eta Hezkuntza), aldundiak, hiru hiruburu-etako udalak, dantzaren sektorearen bateko elkarteetako edo ekimene-tako ordezkariak.
2. 2. Dantzaren egoera, egituraketa eta irakaskuntza arautuaren analisia trebakuntzaren maila guztietan (oinarrizko zikloa, erdi mailakoa, eta goi mailakoa). Dantza tradizionalaren titulua egituratzea.
3. 3. 3 koreografia-zentro sortu eta/edo egokitzea (edo 'Dantza etxea'), lurralde bakoitzean bat, dantzako zaletu eta profesionali bideratuak, sentsibilizazio, sorkuntza, ekoizpen eta zabaltze jarduerak egiteko. Hauek izango lirateke zentro hauen helburu nagusiak: zentroan tokia, baliabideak eta laguntza eskaintzea eta lurralde bakoitzeko ekimene-n jarduera eta baliabideak koordinatzea.
4. 4. Sentsibilizaziorako eta dantzara hasteko programak eta jarduerak antolatu eta bultzatzea. Eskola-haurrei zuzenduak egongo dira, eta eskolan bertan egingo dira.
5. 5. Dantza tradizionala: koordinazioaren eta baliabideen zerbitzu berezia, Kultura Tradizional edo Folklore Institutuaren esparruan; ikerketa, trebakuntza, sustapen eta zabaltze programa zehatzak garatuko dira.
6. 6. Dantza komunikabide guztietan azaltzea bide hauek erabiliz: programazio zehatzak, agendak, albistegiak eta emankizunak; komunikabideek material hori guztia ondo tratatzea lortu.
7. 7. 'Formatu txikiko edo ertaineko' dantza programatzeko zirkuitu bat sortzea bultzatu, lurralde bakoitzean antzoki kopuru zehatz batek parte hartuz, urtean zehar programazio-erreferentzia egonkor bat izango dena. Guztiek batera, zirkuitu horren publizitatea egin.
8. 8. Hiru lurralde-etako antzoki jakin batzuetan kalitatezko dantza tradizional egonkorra bultzatzea. Horiekin batera, beste kulturetako dantzak programatu.
9. 9. Dantza-ekoizpen profesionalak kanpora irteten laguntzea.
10. 10. Dantzaren Dokumentazio, Informazio eta Aholkularitza Zerbitzua. Zeregin hauek izango ditu: zabaldu-tako dokumentazioa jasotzea, baliabideen gida bat egin eta etengabe berritzea, web gune bat sortzea (eskolak, ikastaroak, profesionalak, konpainiak, jarduerak...), ikerketa egitea, etab. Hori guztia dantzako zaleentzat, ikasleentzat, irakasleentzat eta profesionalentzat egongo da eskuragarri.
11. 11. Dantza sortu eta produzitzen duten ekimenak laguntzea. Laguntza ekonomiko-z gain, beharrezkoa da produktiorako toki aproposak eskaintzea, baliabideak bateratzeko eta konpainiak lanean jarraitu dezaten errazteko.